

2001-05-24
aurkibidea**EUSKAL HERRIA** 9
Redondo Ibarretxerekin

Juan Jose Ibarretxe EAeko jarduneko lehendakaria Nicolas Redondo Terrerosekin bildu da Ajuria Enean. Oposizio «eraikitzailea eta malgua» agindu dio PSE-EEko idazkari nagusiak Ibarretxeri.

EUSKAL HERRIA 11
Hiru zarauztarren aurkako espetxeratze agindua

Zarauzko hiru lagun espetxean sartzeko agindua eman du Donostiako Entzutegiak, duela lau urte manifestazio batean zihoazela ertzainei mehatxu egitea leporatuz.

EUSKAL HERRIA 14
Helduen euskalduntzearen IV. jardunaldiak

Helduen euskalduntzearen IV. jardunaldiak egingo dira bihar Donostiako Kursaal jauregian. Euskara irakasleen arteko komunikazio esparruak indartzea izango da horien helburua.

EKONOMIA 18
Euroa behera

Euroak behera egin du berriro ere, inflazio igoerak eta hazkunde apalak eraginda.

EKONOMIA 20
Akordiorik ez Nafarroan

Nafarroako garraiolarien sindikatuek eta Patronalak eginiko bilerak ez du emaitza onik eman, eta grebak bere horretan jarraitzen du.

KULTURA 42
Juan Mari Beltranen disko berria

Juan Mari Beltran musikari nafarrak bere azkeneko diskoa aurkeztu du. Euskal soinu tresna, hots, tinbre, erritmo eta estilo ezberdinak nahastu ditu bertan.

Egunkaria euskaldunon 3.249. zenbakia

Ohorezko Lehendakaria: Martin Ugalde

Administrazio Kontseiluko Lehendakaria: Joan Mari Torrealdai

Kontseilari Ordezkarria: Iñaki Uribe

Zuzendaria: Martxelo Otamendi

Gerentea: Mikel Sorozabal

Publizitatea: Idoia Sanz

Egoitza Nagusia: Gudariaren etorbidea, z/g 20140 Andoain Tel.: 943300222
Erredakzio faxa: 943300255-943590354 Publizitateko faxa: 943300707

Webgunea: www.egunkaria.com

Posta elektronikoa: egunkaria@egunkaria.com

Publizitatea: publi@egunkaria.com

Batzorde Parekidea: 72564 E. Lege Gordailua. SS 800/90 ISSN 1134-640X
OJDK IKUSKATURIKO HEDAPENA

ORDEZKARITZAK ■ **Araba:** San Antonio, 20-1 ezker. 01005 Gasteiz

Tel.: 945233872 Faxa: 945233873 Publizitatea: Tel.: 945131965

Nafarroa: Irabxe Monasterioa, 45-13. esk. (Irrintzi dorrea) 31011 Iruñea

Tel.: 948178073-79 Faxa: 948178077 Tel.: Publizitatea: 948176686

Bizkaia: Egia Jenerala, 3-behea. 48010 Bilbo Tel.: 944104046 Faxa: 944103715

Tel.: Publizitate Orokorra: 944701199-80 Publizitate Lokala: 944701114

Lapurdi, Nafarroa Beherea, Zuberoa: Pannecau 14, 1 503 Posta
kubxatila, 64100 Baiona Tel.: 559593575 Faxa: 559257511

martintxo**hizpideak****Euskal Herriko mendizaletasuna goi-goian**

Egun arrakastatsua izan zen atzo euskal mendizaletasunarentzat, Himalayan. Hotzean, datuak ikusgarriak dira. Euskal Herriko sei mendizale heldu ziren 8.000 metrotik gorako gailur batera, bost Everestera, eta beste bat Lhotsera. Lorpena zehatz aztertuta, are

garrantzitsuagoa da atzoko eguna. Patxi Goñi, Julen Reketa eta Edurne Pasaban Hegoaldeko aurpegitik igo ziren Everestera (8.850), eta Juan Vallejo eta Juanito Oiarzabal, ipar-ekialdeko ertzetik. Bost mendizaleok 1993az geroztik luzatu den lehortea amaitutzat eman zuten, urte horretan igo baitzen azken aldiz Euskal Herriko mendizale bat Everestera (Juanito bera izan zen azkena). Gure alpinismoko historian, ostera, distira handiagoarekin egingo du argi Pasabanen lorpenak, Euskal Herriko lehen emakumea baita gailu-

rrera heltzen dena. Baita ere Vallejo eta Oiarzabalena, ipar-ekialdeko isurialdetik gailurrerainoko bidea egiten duten lehen bi euskal mendizaleak baitira. Oiarzabal pozik zen, Himalayako 14 zortzimilakoak igota ere, Everest oxigenoaren laguntzarekin igo baitzuen. Atzo oxigenoa erabili gabe igo zen, orduko orbain hori betirako itxita. Zerai- nek ere egin zuen berea, Lhotsera igota. Goiko kanpamenduetara onik iritsi ziren guztiak. Beheko kanpamenduetara ere osasuntsu heltzea bakarrik falta da ospakizuna erabatekoa izateko.



Edurne Pasaban mendizale tolosarra artxiboko argazki batean.



Javier Solana eta Ariel Sharon, atzo, Jerusalemen.

Muga gehiago euskararendako

Nafarroako Gobernuak ingelesaren edo frantsesaren parrera utzi nahi du euskara Nafarroako Unibertsitate Publikoan (NUP), ikasketen oinarria diren enborrezko edo derrigorrezko ikasketak erdara hutsean emateko asmoa baitu. NUPen euskararen egoera arautzeko prestatzen ari den Lege Proiektuak jasotzen du, horrela, espezializazio gutxien duten ikasgaiak soilik –hautazko libreak– eskainiko direla euskaraz, ingelesez edota frantsesez eskaini ahal izango diren bezala, «eskaeraren arabera». Pedro Pegenaute Hizkuntza Politikarako zuzendari nagusiak azaldu ditu asmoak, eta zinismo ikutua ere ez zitzaion falta izan. «Ez dugu unibertsitate elebidunik nahi, baina unibertsitate eleanitza». Ikusgai da orain unibertsitatearen erantzuna. Aurrekoak antzeko asmoak geldiarazi zituen.

Bush Mitchellen alde

Mitchell Txostenak *intifada* geldiarazi eta Ekialde Hurbileko gatazka konpontzeko eskaini duen «aukera» baliatzeko galdegin zien atzo EEBBetako presidente George W. Bush-ek Ariel Sharon Israelgo lehen ministroari eta Jasser Arafat Palestinako Agente Nazionaleko presidenteari telefonoz, pasa den astean Arafatek EEBBetako Kongresuari gutun baten bidez txostenaren aldeko jarra hartzeko eskatu ondoren.

Altxamendua geldiarazteko ehuneko ehunehun ahaleginduko zela agindu zion Arafatek Kongresuari. Kongresua aste honetan da txostenari buruzko iritzia plazaratzeko, eta bitartean, Sharoni txostena oso-osorik betetzeko exijitu dio Arafatek, hark asteartean aldarrikatu zuen su-etena onartzeko. Izan ere, Mitchell batzordeak eremu juduak eraikitzeari uzteko aholkatu arren, kokaguneez «hazkunde naturala» bultzatzeko asmoa baitu Sharonek